


Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 9,9 hazi da 2025eko hirugarren hiruhilekoan

Etxegintzak % 10,9 egin du gora eta Ingeniaritza zibilak % 7,7ko hazkundera izan zuen urte arteko terminoetan

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera, prezio korranteetan, 2025eko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko berean baino % 9,9 handiagoa izan da, Eustatek landutako datuen arabera.

Urte arteko prezioen hazkundera, prezio korranteetan, Etxegintza (% 10,9) eta Ingeniaritza zibila (% 7,7) sektoreek izandako portaera positiboagatik gertatu da, 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea obra-motaren arabera Urte arteko tasa. Egutegiko eraginak zuzenduta



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI)

2025eko hirugarren hiruhileko honetako sektorearen jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, 2025eko bigarrenarekin, Eraikuntzaren koiunturako indizea, % 3,0 igo da termino nominaletan edo uneko prezioetan, dagozkion urtaro-ondorioak atera ondoren. Etxegintzaren jarduera % 3,1 eta Ingeniaritza zibilea % 2,3 igo dira aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak. Uneko prezioak (p). 2025/III

	Uneko prezioak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-4
Indize orokorra Euskal AE	9,9	3,0	7,3
Eraikinak	10,9	3,1	8,9
Ingenieria zibila	7,7	2,3	4,2
Araba/Álava	8,2	2,2	7,9
Bizkaia	10,7	3,5	7,0
Gipuzkoa	9,1	2,6	7,7
Indize orokorra higiezinaren sustapenik gabe	10,5	3,5	6,9
Higiezinaren sustapenik gabeko eraikuntza	11,8	3,9	8,2
Langile okupatuaren indizea Euskal AE	2,8	1,4	1,2

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza-tasa. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t/t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. Datu desestazionalizatuak

At/At4 Urte arteko aldakuntza-tasa metatutako aldiari, urteko 1. hiruhilekotik behatutako azken hiruhilekora arte (At), aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean (At-4). Egutegiaren ondorioen datu zuzenduak

Data 2025eko Azaroaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

2025eko hirugarren hiruhilekoan, Eraikuntzaren sektorearen jarduerak gora egin du urte artean % 8,2 Araban, % 10,7 Bizkaian eta % 9,1 Gipuzkoan. Aurreko hiruhilekoarekin konparatuta, indizeak gora egin du % 2,2 Araban, % 3,5 Bizkaian eta % 2,6 Gipuzkoan.

Higiezinaren sustapenaren jardueraren eragina kontuan hartu gabe, Etxegintzaren jarduera, urte artean, 2024ko hiruhileko berean baino % 11,8 handiagoa izan da, eta hiruhileko artean, berriz, % 3,9 igo da. Eraikuntzaren sektore osoa, *Higiezinaren sustapena* kontuan hartu gabe, % 10,5 igo da 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean eta, aurreko hiruhilekoaren aldean, % 3,5.

Landunen indizea, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean % 2,8 igo ondoren, aurreko hiruhilekoan (2025-ko bigarren hiruhilekoan) baino % 1,4 handiagoa izan da 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

Informazio-oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % 90,4-ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62